eginaren eginez

Zurekin Zuzenean

Zk. 26

Septiembre 2021eko iraila

ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE ÁLAVA - ARABAKO GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTEA

# ESCUELA PARA EL EMPODERAMIENTO FEMINISTA

*eginaren eginez* colabora con la ESCUELA DE EMPODERAMIENTO FEMINISTA del Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Puedes conocer la programación 21/22 en nuestra web **www.eginez.org** y consultar todas las actividades desde la inauguración, el 29 de septiembre de 2021, hasta la clausura, el 26 de mayo de 2022. Hay un concurso de trabajos de investigación feminista, conferencias, artes escénicas, documentales, cinefórum, clubes de lectura, cursos y talleres, y *feminismomola* (actividades para niñas, niños, niñes y jóvenes).

Somos colaboradoras habituales y este año hemos propuesto varias iniciativas que tendrán lugar en abril y mayo de 2022:

- **Mujeres con diversidad funcional y vida independiente:** los días 4, 5, 6 y 7 de abril de 2022, en

# JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA

*eginaren eginez* elkartea Gasteizko Udalaren Berdintasun Zerbitzuko JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLArekin elkarlanean.

21/22 programazioa ezagutu dezakezu gure webgunean, **www.eginez.org**, eta jarduera guztiak kontsulta ditzakezu 2021eko irailaren 29an inauguratu zenetik amaiera bitarte, 2022ko maiatzaren 26an. Hainbat ekitaldi daude: ikerketa feministen lanen lehiaketa, hitzaldiak, arte eszenikoak, dokumentalak, zineforuma, irakurketa klubak, ikastaroak eta tailerrak eta *feminismomola* (haurrentzako eta gazteentzako jarduerak).

Ohikoa de elkarlanean jardutea, eta aurten hainbat ekimen proposatu ditugu 2022ko apirilerako eta maiatzerako; zehazki:

- **Mujeres con diversidad funcional y vida independiente (Aniztasun funtzionala eta**

la Casa de Mujeres-Palacio Etxanobe, contando con la formadora **Coral Hortal Japón**, activista de los derechos humanos de las personas con diversidad funcional y feminista. Integrante de VIAndalucía.

- **Divertad sexual:** en mayo de 2022, también en la Casa de las Mujeres-Palacio Etxanobe, a cargo de una formadora de COCEMFE (Confederación Española de Personas con Discapacidad Física y Orgánica).

En las páginas 74 y 82 de la programación tienes la reseña de estos dos talleres. Te animamos a consultar todas las actividades y a participar. Si queréis disponer de la publicación en papel podéis venir a saludarnos y a recoger los ejemplares a nuestra sede social.

Un saludo y esperamos que disfrutéis de la programación del 21/22.



**bizimodu independentea duten emakumeak):** 2022ko apirilaren 4an, 5ean, 6an eta 7an, Emakumeen Etxea-Etxanobe jauregian; trebatzailea: **Coral Hortal Japón**, aniztasun futzionala dutenen giza eskubideen aldeko aktibista eta feminista. VIAndalucía elkarteko kidea da.

- **Divertad sexual (Sexu-aniztasuna):** 2022ko maiatzean, Emakumeen Etxea-Etxanobe jauregian; trebatzailea: COCEMFE, Desgaitasun Fisiko eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioko trebatzaile bat.

Programazioaren 74. eta 82. orrialdeetan aurkituko duzu bi tailer horien aipamena. Kontsulta itzazu jarduera guztiak eta anima zaitez parte hartzera. Argitalpena paperean eskuratu nahi izanez gero, etor zaitez gure egoitza sozialera eta, programazioa jasotzeaz gain, gu agurtu gaitzakezu!

21/22 ikasturteko programazioa zuen gustukoa izatea espero dugu. Agur bat.

# NUEVA PRESIDENCIA EN
# eginaren eginez

Saludo,

Desde junio de este año ha recaído en mí el cargo de presidenta. En 2021 *eginaren eginez* ha cumplido 42 años de actividad. Más de cuatro décadas en las que todas las personas que han pasado por este cargo y por otros, así como personas voluntarias y militantes, y el personal liberado, hemos trabajado día a día para conseguir la inclusión plena de las personas con discapacidad física en todos los ámbitos de la sociedad.

Nuestro trabajo se centra en lograr una sociedad más inclusiva, en la que todas las personas podamos vivir de manera independiente, en condiciones de libre elección, igualdad de oportunidades, participación y plena ciudadanía.

Nuestro reto es hacer efectiva la vida independiente de las personas con discapacidad física de Araba. Es, por ello, que pretendemos un cambio de paradigma en el ámbito de los servicios sociales donde transitemos de un marco asistencial a un sistema integral de apoyos personalizados en la comunidad.

Pero esto solo no es suficiente, nuestra apuesta pasa por establecer cambios normativos acorde a lo establecido en la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad en los ámbitos de vivienda, educación, accesibilidad universal, salud, empleo ordinario, productos de apoyo, asistencia personal y garantía de ingresos, todos ellos desde una perspectiva de género.

**El Modelo para la Vida Independiente** en Araba supone el proyecto troncal de las actividades de *eginaren eginez* para los próximos años. Un proyecto que nos reta a revisar nuestros enfoques de trabajo, para ir consiguiendo avances en este campo. Te invito a participar y a incorporarte a la vida asociativa para potenciar mejores competencias de apoyo para la vida independiente, y generar condiciones de igualdad y no discriminación en ámbitos clave como los de la salud, la educación, los servicios sociales, el trabajo o el urbanismo.

**Blanca Esther Pinedo Gallego**
PRESIDENTA

# LEHENDAKARI BERRIA
## *eginaren eginez* ELKARTEAN

Agurra,

Aurtengo ekainaz geroztik, nire gain hartu dut lehendakari kargua. 2021ean 42 urte bete ditu *eginaren eginez* elkarteak. Lau hamarkada baino gehiago daramatzagu egunero-egunero lanean kargu hau eta beste batzuk izan dituzten pertsona guztiok, bai eta boluntarioek eta militanteek eta langile liberatuek ere, desgaitasun fisikoa duten pertsonak gizarteko esparru guztietan erabat sar daitezen lortzeko.

Gure lanaren ardatza da gizarte inklusiboagoa lortzea, bertan guztiok modu independentean bizi ahal izateko, aukera askeko, aukera berdintasuneko, partaidetzako eta herritartasun osoko baldintzetan.

Gure erronka da Araban desgaitasun fisikoa duten pertsonek egiaz bizimodu independentea izan dezaten lortzea. Hori dela eta, paradigma aldatu nahi dugu gizarte zerbitzuen eremuan, laguntza esparrutik komunitatean pertsonalizatutako laguntza sistema integralera igarotzeko.

Baina hori ez da nahikoa, gure apustua da arau aldaketak ezartzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera, etxebizitzaren, hezkuntzaren, irisgarritasun unibertsalaren, osasunaren, enplegu arruntaren, laguntza produktuen, laguntza pertsonalaren eta diru sarreren bermearen arloetan, guztiak ere genero ikuspegitik begiratuta.

Arabako **Bizimodu Independenterako Eredua** da *eginaren eginez* elkartearen jardueren hurrengo urteetarako proiektu nagusia. Proiektu horrek gure lan ikuspegiak berrikustera behartzen gaitu, arlo horretan aurrerapenak lortzen joateko. Parte hartzera eta elkarte bizitzan sartzera gonbidatzen zaitut, bizimodu independenterako laguntza gaitasun hobeak bultzatzeko eta berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzak sortzeko funtsezko esparruetan, hala nola osasunean, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, lanean edo hirigintzan.

**Blanca Esther Pinedo Gallego**
LEHENDAKARIA

# ACCESIBILIDAD

**eginaren eginez** ha presentado una reclamación en la Agencia Tributaria, en la sede de calle Olaguibel 7, de Vitoria-Gasteiz, ante la falta de accesibilidad, y lo ha puesto en conocimiento de la Defensoría del Pueblo.

Igualmente estamos preparando una reclamación para la OSI Araba, ante las quejas que nos habéis hecho llegar, de la falta de accesibilidad y los problemas que estáis encontrando en los baños de las habitaciones de los hospitales de Araba. Igualmente lo hemos puesto en conocimiento, en este caso, del Ararteko.

También hemos reclamado al concejal de espacio público y al alcalde la modificación de los semáforos ubicados en Beato Tomás de Zumárrga, a la altura del número 100, ya que era imposible llegar al pulsador.

## ¡CUÉNTANOS TU DENUNCIA!

Recuerda que puedes hacernos llegar tu denuncia sobre cualquier situación en la que tu derecho a la igualdad de oportunidades se vea vulnerado (accesibilidad urbana o de las edificaciones, transporte, educación, empleo, ocio, discriminación, etc.)

# IRISGARRITASUNA

**eginaren eginez** elkarteak erreklamazio bat aurkeztu du Zerga Agentzian, Gasteizko Olagibel kaleko 7. zenbakian irisgarritasun falta dela eta, eta horren berri eman dio Herriaren Defentsa Erakundeari.

Era berean, erreklamazio bat prestatzen ari gara Araba ESIrentzat, helarazi dizkiguzuen kexen aurrean, Arabako ospitaleetako geletako komunetan aurkitzen dituzuen irisgarritasun faltaren eta arazoen ondorioz. Kasu honetan, Arartekoari ere jakinarazi diogu.

Bestalde, eremu publikoko zinegotziari eta alkateari eskatu diegu Tomas Zumarraga Dohatsua kalean dauden semaforoak aldatzeko, 100. zenbakiaren parean, ezinezkoa baitzen etengailura iristea.



## KONTA IEZAGUZU ZURE SALAKETA!

Gogoratu zure salaketa helaraz diezagukezula, aukera berdintasunerako eskubidea urratzen zaizun edozein egoerarik buruz (hiriko edo eraikinetako irisgarritasuna, garraioa, hezkuntza, enplegua, aisialdia, diskriminazioa, etab.)

# PRODUCTOS DE APOYO

*eginaren eginez* tiene un servicio de préstamo de productos de apoyo gratuito y durante un tiempo limitado, prorrogable, hasta que las entidades públicas facilitan el producto definitivo.

Entre otros productos, se dispone de una silla manual, una silla eléctrica, muletas y andadores.

**¿A quién está dirigido?**

A toda persona que tenga la necesidad y sin límite de edad.

El préstamo se solicita en la sede social.

Teléfono de contacto:

**945 22 55 16**

# LAGUNTZA PRODUKTUAK

*eginaren eginez* elkarteak laguntza produktuak maileguan uzteko doako zerbitzua du. Produktu horiek epe mugatu bateko uzten dira, epe hori luzatzeko aukerarekin, erakunde publikoek behin betiko produktua eman arte.

Besteak beste, eskuz eragiteko aulki bat, aulki elektriko bat, makuluak eta taka-takak ditu.

**Norentzat da?**

Beharra duen pertsona ororentzat, adin mugarik gabe.

Mailegua elkartearen egoitzan eskatu behar da. Harremanetarako telefonoa:

**945 22 55 16**

eginaren eginez


Plaza Simón Bolívar plaza, 9 bajo/behea
01003 VITORIA-GASTEIZ
Tfno./Tel.: 945 22 55 16 • Fax/Faxa: 945 06 18 09
info@eginez.org
www.eginez.org • www.ponteenmilugar.eu



F.P. publicorreo ÓPTIMO

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava